

Otsailaren 24an
URTEAN ZEHARREKO 7. IGANDEA

Agurra

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Igandea dugu, senideok: Jaunaren eguna! Zatiketa eta gorrotoa gainditzten laguntzen digun maitasunaren sakramentua ospatzera bildu gara. Aitak bezalako bihotz errukitsua izan dezagun moldatzen gaitu pixkanaka Eukaristiak: ospa dezagun pozik.

Damu-otoitza

Eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, Zuk maite gaituzu lehenengo: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zuk ezer itxaro gabe maite gaituzu: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zuk neurri gabe maite gaituzu: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko ahalguztiduna,
 egizu, zure erakutsiak beti gogoan erabiliz,
 hitzez eta egitez zure nahia bete dezagula.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Aita errukitsua da Jainkoa, hala agertzen zaigu Liburu Santu osoan eta hala islatzen dute gaurko irakurgetan ere. Aita hori da Jesusek jartzen digun eredu, eta Aita horren antzekoak izatea da ezartzen digun neurria: barkatzaileak, errukitsuak, maitasunez beteak.

Lehenengo irakurgeta (1 Sm 26, 2. 7-9. 12-13. 22-23)

Samuelen liburutik

Egun haietan, Zifko basamortura jaitsi zen Saul, hiru mila mutil israeldar aukeratuekin Daviden bila.

David eta Abisai iritsi ziren gauetz ertsaien txabolategira, eta han aurkitu zuten Saul lo, gurdien erdian etzanda, bere buru ondoan lantza lurrean sartua zeukala. Abner eta gudariak ere lo zeuden, haren inguruan etzanda. Orduan Abisai honela mintzatu zitzaion Davidi: «Jainkoak gaur eskutan jartzen dizu zure etsaia. Utz iezadazu lantzakada batez lurrari josten; ez du beharko bigarrenik». Davidek, ordea, Abisairi: «Ez hil! Ez bait daiteke zigorrik gabe gelditu Jaunaren gantzutuari erasten dionik».

Orduan Davidek hartu zituen Saulen buru aldetik lantza eta urontzia, eta joan egin ziren. Ez zituen inork ikusi, ez zen inor ohartu; ezta esnatu ere; denak lo zeuden, Jaunak lo astuna bidali zien eta.

David beste aldera joan zen, eta han urruti gelditu mendi gailurrean, Saulengandik tarte handia zuela. Handik Davidek oiheratu egin zuen: «Errege, hona hemen zure lantza. Bidal ezazu mutil bat honen bila. Jaunak ordainduko dio bakoitzari egin duen zuzena eta leiala. Jaunak gaur nire eskutan jarri zaitu; baina nik ez diot eskurik erantsi nahi izan Jaunaren gantzutuari».

Erantzun-salmoa (*Sal* 102, 1-2. 3-4. 8 eta 10. 12-13)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a
 ta mai - ta - su - na.

Ene arima, goretsazu Jauna,
 neure barren osoak Haren izen deuna.

Ene arima, goretsazu Jauna,
 eta ez ahaztu Hark zuri egina. R/.

Hark barkatzen baititu zure hobenak,
 sendatzen zure gaitzak denak;
 begiratzen du heriotzatik zure bizia,
 ematen dizu buruntzat grazia eta errukia. R/.

Errukior da Jauna eta kupibera,
 berant-haserre eta guztiz onbera.
 Ez dihardu gurekin gure hobenen neurria,
 ez digu ordaintzen geure erruen harira. R/.

Sortalde-sartaldeak urrun baitaude elkarrengandik,
 hain urrun bidaltzen ditu gure gaiztakeriak gugandik.
 Aita bere seme-alabetaz errukitu ohi den bezala,
 begirune diotenentzat errukidun da Jauna. R/.

Bigarren irakurgaia (*1 Ko* 15, 45-49)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Lehenengo gizona, Adan, bizidun egina izan zen; azkenengo Adan, espiritu biziemailea da.

Ez da espiritua lehenengo azaltzen dena, bizia baizik; eta gero espiritua. Lehenengo gizona, lurretik, lurrekoa da; bigarrena, zerutik dator. Lurreko hura nolako, lurrekoak halako; eta zeruko hura nolako, zerukoak halako.

Beraz, lurrekoaren antza daramagun bezala, eramango dugu zerukoarena ere.

Aleluia (Jn 13, 34)



Agindu berria ematen dizuet —dio Jaunak—:
maita ezazue elkar,
Nik maite izan zituztedan bezala. R/.

Ebanjelioa (Lk 6, 27-38)

Homiliarako argibideak

Etsaiak maitatu... denei barkatu...

Joan zen igandeko zoriontasunak harrigarriak baziren, Jesusen gaurko aholkuek ere txundituta uzten gaituzte. Jesusen irakaspena beti da maitasuna. Gogorra da eskatzen diguna. Gaitzari gaitzarekin ez erantzuteko esan baligu, edota indarkeriarik ez erabiltzeko...

edo barkatzeko esan baligu, gutxienez! Baina, etsaiak maitatzeko eskatu digu! Etsairik ez izateko, alegia!

Daviden bihotz handia ikusi dugu lehenengo irakurgaietan: Jaunaren gantzutuarekiko begirunea bere barruko garraren gainetik jarri duenean. Ezagutzen ditugu Daviden bizitzako alderdi okerragoak, baina gaurkoan etsaia barkatuz ikusi dugu.

Jesusen irakaspena are estuagoa, zorrotzagoa, gertatzen zaigu: maitatu etsaiak, egin on gorroto zaituztenei, bedeinkatu gaitzesten zaituztetenak, egin otoitz iraintzen zaituztenen alde... baina... hau guztia ez alda gehiegi, Jesus?

Goitik behera aldatzeko eskatzen du Jesusek. Gorrotoa eta ezinikusia lagun txarrak dira. Gainditu egin behar dugu borrokaren garra, eten egin behar da indarkeriaren katea: indarkeriarik eza behar dugu, harreman pertsonaletan, familian, gizartean eta Elizan.

Eta oraindik ulertu ez badugu, Maisuak pedagogia zehatza darabil berriz: maite zaituztenak maitatuz zer esker on merezi dugun dio; on egiten dionari onez erantzutea nork ez du egiten?

Jesusek ez digu eskatzen gaitzaren aurrean lasai geratzeko, baina bai gaitz ororen aurrean justiziaren alde, askatasunaren alde, baina gorrotorik eta indarkeriari gabe ekiteko.

Senidea maitatzeko eskatu digunean, Jesusek bere burua jarri digu eredu: "maitatu, nik maitatu zaituztedan bezala". Izan ere, eredu ona da, besteengatik bere burua emateraino maitatu gaituena.

Eredu miresgarria eman digu gaur ere: "izan errukiorrak, Aita errukiorra den bezala". Beste behin esan zigun Aitak eguzkia denentzat ateratzen zuen moduan, guk ere denekiko maitasunez jokatu behar genuela. Aita jartzen digu neurri, eredu, guk ere "Aita" deitzean bere moldera era gaitzen.

Eta hau guztia gutxi balitz, urrezko araua eman digu: gurekin jokatzea nahi dugun moduan besteekin jokatzeko, alegia. Nork ez du nahi besteren arretarik, besteren barkamenik, besteren eskuzabaltasunik? Ba nahi dugun hori egin behar diegu besteei ere. Guk darabilgun neurri bera erabiliko baita gurekin.

Jesusi jarraitzea ez da erraza. Ikasgai markaltsua da neurrigabeko maitasunaren hau. Baina honek dakar egiazko zoriona eta poza. Jesusen irakaspena, izan ere, ez da hitz hutsa... gurutzerainoko aldapa izan zen bere bizi-tza, egiazko zoriona bere burua ematean aurkitu zuena.

Karitatearen eskolan, karitatean mahaian gaude; gaur ere esango dugu "barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegun ezkeror". Esateak eginaraz diezagula eskabide horrek dioen ekintza ederra.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Jainko onari otoitz xume eta egiazkoa eginez:

- Eguzki alde batetik besteraino zabaldurik dagoen Eliza Santuaren alde: Jaunak itxaropenean sendo dezan eta munduko lilura eta gehiegikerietara jo ez dezan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Munduan agintea dutenen alde: haien gidaritzapean bakez bizi gaitezten, Kristo, gure itxaropena, goratuz. Eska diezaiogun Jaunari.
- Fedearen testigantza emateagatik sufritzen dutenen alde, misiolarien alde: Jaunak leial sendo ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.

—Jaunaren izenean bilduak gaudenon alde eta otoitzean gogoan ditugun guztien alde: Jainkoak fedean sendo gaitzan eta egun batean guztiok Bere erreinuan bildu. Eska diezaiogun Jaunari.

Dena errukia zaren Aita, Kristogan agertu diguzu Zure maitasun debaldekoa, entzun gure otoitzak eta emaguzu bihotz berria gure etsaiak maitatzeko gai izan gaitezen eta gure aurka direnen alde otoitz egiteko gai izan geitezen Zure Semeak agindu bezala. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zure misterioa bihotz berriz ospatuz, Jauna,
apalik eskatzen dizugu:
zure handitasunaren osperako eskaintzen duguna
gure salbamenerako izan dadila.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**